

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Malou Henriksen Goiburuko segalaria

Euskal kirolean sakontzeko gogoz, Euskal Herriko sega txapelketaren hirugarren jardunaldian parte hartu zuen / 12

Lehen udal batzarraldia egin dute

Andoaingo eta Urnietako agintaldiak martxan jarri dira, arduren eta dedikazioen onarpenekin. Aurreko astean herri bakoitzean pleno bana egin zuten / 2-4

Auziperatuak epaiketaren atarian

Etxerateko kideen aurkako auzian, irailean Madrilan epaituko dituzte Ekain Zubizarreta andoaindarra eta Amaia Esnal eta Jexuxmari Aldunberri urnietarrak. / 7



Euskara eta euskal kantagintza Urnietan sustatzeko "Kantazaun" ekimena abiatuko dute / 5

Eskuz binakako pilota txapelketa eta pala txapelketa, uztailen zehar Goiburuko pilotalekuan / 13

Zanpatuz mendi taldeak datorren uztailaren 20rako Añamendira irteera antolatu du / 13



Arazo teknikoak konpondu eta astebururako zabalik egongo da Urnietako igerilekua / 15



Ez ohiko batzarraldia egin zuten Andoaingo udaletxean, joan zen ekainaren 26an. AIURRI

Ez ohiko plenoarekin, agintaldia martxan da

Ekainaren 26an agintaldi berriko lehen plenoa egin zuten, Udal hauteskundeak ospatu zirenetik hilabetea bete zen egunean bertan. Udal arduren, gobernu osaketaren eta lanaldien inguruko erabakiak hartu zituzten

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Maidar Lainezek alkate modura zuzendu zuen lehen plenoa izan zen. Lehen erabakiak agintaldiari hasiera ematera bideratuta zeuden. Udalgintzaz harago, Lainezek San Juan jaien balorazio positiboa egin zuen. Eragilean eta herritarren parte hartzea eskertu zuen.

Tokiko Gobernu Batzordea

Sei kide izango dira, hiru alderdi bakoitzetik: Maidar Lainez, Jose Luis Verdasco eta Oscar Mendo sozialistak, alde batetik. Eta, bestetik, Marijose Izagirre, Mikel Arregi eta Iñaki Egibar jeltzaleak. Gobernuaren osaketari dagokionez, Esti Mujika EH Bilduko zinegotziak kezka azal-

tzeko hitza hartu zuen. Berdintasuna Andoaingo udaletxean aplikatzekoa den gai transbertsala izanik, Berdintasun saileko zinegotzia (Petri Romero) gobernu taldean ez egotea ulergaitza zaiola adierazi zuen. Eta, bide batez, gobernu taldearen parekidetasun falta ere aipatu egin zuen.

Dedikazioak

Andoaingo alkaterekin batera, hauexek izango dira dedikazioak:

- Lanaldiaren %100ean Jose Luis Verdasco sozialista.
- Lanaldiaren %86an Marijose Izagirre jeltzalea.
- Lanaldiaren %50ean Andoni Alvarez EH Bildukoa.
- Lanaldiaren %50ean Jon Zulueta EH Bildukoa.
- Lanaldiaren %43a Txitxu Ruiz jeltzalea.
- Lanaldiaren %29a Oscar Mendo sozialista.
- Lanaldiaren %23,52a Garazi Usandizaga EH Bildukoa.

Proposamena ahobatez onartu zen. Tere Santanak dagokion lanaldiaren %17,6ari uko egin zion, lanarekin osagarri bilakatzeko ezinezkoa zaiolako. Kexu agertu zen, ordezkariak txikiakiko begirune gehiago eskatzearekin batera. Denei aplikatzen zaion irizpide berbera jarraitu duela erantzun zion Lainez alkateak.

Ordezkaritza erakundeetan:

- Eskualdeko hiltegiko Mankomunitateko ordezkariak: Maidar Lainez (PSE-EE) eta Mari Jose Izagirre (EAJ-PNV).
- Tolosaldeako Mankomunitateko ordezkariak: Maidar Lainez (PSE-EE) eta Mari Jose Izagirre (EAJ-PNV).
- Gipuzkoako Ur Partzuergoan ordezkariak: Maidar Lainez (PSE-EE) eta Mari Jose Izagirre (EAJ-PNV).
- Beterri-Buruntza garapen agentziko ordezkariak. Lankidetzak hitzarmenerako: Maidar Lainez (PSE-EE) eta Jon Zulueta (EH Bildu). Mankomunitatea eratzeako batzorderako: Maidar Lainez (PSE-EE) eta Mari Jose Izagirre (EAJ-PNV).

Euskara

Maidar Lainez alkateak hitza hartu eta plenoetan gaztelaniaz hitz egingo duela iragarri zuen. Batzordeetan eta egunerokoan euskara darabilera arrazoitu zuen, baina plenoak internet bidez ematen direnez, ahalik eta ulermen maila handiagoa izateko gaztelania erabiliko duela adierazi zuen.

EH Bilduko Jon Zuluetak atsekabea agertu zuen, eta hurrengo ordu eta egunetan iritzi ugari sortu ziren sare sozialetan. Eguna igarota, EAJ-PNV sozialisten erabakiarekin kritiko agertu da (6. orrialdean irakurgai, 'Postontzia' atalean).

Udal lantsailen ardurak

- Hirigintza, obrak, ingurumena, landagunea: Jose Luis Verdasco (PSE-EE).
- Ekonomia eta ogasuna: Maidar Lainez (PSE-EE).
- Langileria, antolakuntza, barne araugintza: Jose Luis Verdasco (PSE-EE).
- Gizarte zerbitzuak: Maidar Lainez (PSE-EE).
- Berdintasuna: Petri Romero (PSE-EE).
- Kirola: Oscar Mendo (PSE-EE).
- Zerbitzuak: Iñaki Egibar (EAJ-PNV).
- Hezkuntza eta kultura: Txitxu Ruiz (EAJ-PNV).
- Sustapen ekonomikoa, enplegua, gazteria: Marijose Izagirre (EAJ-PNV).
- Euskara: Mikel Arregi (EAJ-PNV).

EH Bildu oposizioan, eta lanerako gogoz

Ekainaren 26ko Udal batzarraldian EH Bilduko bozeramaile Jon Zuluetak oposiziara egokitzen ari direla adierazi zuen. Plenoaren biharamunean, orde, lantaldearen aurkezpenean egin eta lehen neurrien berri eman zuten. Bost proposamen erregistratu behar zituztela iragarri zuten, azkar batean martxan jartzeko: "2019 urterako aurreikusitakoak dira, eta udako sasoiak ona izan daiteke hauei bultzada emateko". Lanerako prest daudela erantsi zuten, "EH Bilduk

Andoaingo lehentasunen inguruan lan egingo du oposiziotik. Udal gobernuaren jarduna kontrolatuz, baina baita ere proposamenak eginez". Hauexek bost neurriak:

- Olagaingo Saneamendua: Proiektua onartutzat eman zen, Zerbitzuen batzordean. Aurrekontua 350.000 eurokoa da, eta uztailan bertan esleipen prozesuari hasiera ematea proposatzen dute, egitasmoa irailean bertan martxan jarri ahal izateko.

- Allurraldeko pista estalia: Aurreproiektua egin dago, eta behin betiko proiektua enkargatzea proposatzen dute: "Prozesua orain martxan jarrita, obra 2021an egin daiteke".
- Terrazak, ordenatza berria: Salkin elkarteak ostalariekin aurre akordioa lortu omen zen, baina hauteskunde gertutasunagatik ez tramitatzea erabaki zuten: "Une aproposa da elkarrizketak berrartu, ordenantza tramitatu lehenbailehen indarrean egon dadin".
- Txakurrei loturiko ordenantza: Txakur kakak biltzeko kanpainak egin izan dira,

eta horren haritik ordenantza berritzeko plana mahai gainean zegoen. EH Bilduk parte hartze prozesu baten bidez abiaraztea proposatu du: "Une honetan Foru Aldundiko dirulaguntza bat onartuta dugu, 2019an egiteko. Prozesu hori uda eta gero egin ahal izateko orain jarri behar da martxan.

- Merkataritza eta irisgarritasuna: "Elkartu elkartearekin hitzarmen bat jarri nahi genuen martxan, Andoaingo komertzioa eta ostalaritza irisgarritasunaren ikuspegitik zein nolako egoeran zegoen aztertzeke".



Maider Lainez, alkatea (PSE-EE).
Gobernu ardurak: Ekonomia, ogasuna, gizarte zerbitzuak.



Jose Luis Verdasco (PSE-EE).
Gobernu ardurak: Hirigintza, obrak, ingurumena eta landagunea.



Ascen Parron
(PSE-EE).



Petri Romero (PSE-EE).
Gobernu ardurak: Berdintasuna.



Oscar Mendo (PSE-EE).
Gobernu ardurak: Kirola.



Marijose Izagirre (EAJ-PNV).
Gobernu ardurak: Enplegua, gazteria.



Mikel Arregi (EAJ-PNV).
Gobernu ardurak: Euskara.



Iñaki Egibar (EAJ-PNV).
Gobernu ardurak: Zerbitzuak.



Txitxu Ruiz (EAJ-PNV).
Gobernu ardurak: Kultura.



Andoni Alvarez (EH Bildu). Arloak:
Euskara, Kirolak, Gizarte Zerbitzuak.



Esti Mujika (EH Bildu). Arloak: Kultura
eta Berdintasuna.



Jon Zulueta (EH Bildu). Arloak:
Langilegoa, sustapen ekonomikoa...



Garazi Usandizaga (EH Bildu). Arloak:
Zerbitzuak eta Hirigintza.



Julian Lopez (EH Bildu).



Maite Etxeberria (EH Bildu).



Xabier Fondon (EH Bildu).



Tere Santana (Elkarrekin Podemos).
Arloak: Hainbat.



Agintaldiko lehen batzaraldia egin zuten Urnietan, ekainaren 28an. AIURRI

Agintaldi berria abiatu dute Urnietan

Gobernu taldearen osaketa, alkate-ordeen izendapena, sail nagusietako ardurak eta erakunde nagusien ordezkariak ontzat emateko ez ohiko batzaraldia izan zen. Ardurak banatuta, agintaldi berriari hasiera eman diote.

Jon Ander Ubeda URNIETA

Lehenik eta behin, Mikel Legarreta Astiasaran zinegotziak zinegotzi akta jaso zuen, pasa zen ekainaren 15eko kargu hartze ekitaldian herritik kanpo zegoelako. Behin hamahirugarren zinegotzia ofizialki izendatuta, udalgintza martxan jartzeko hainbat proposamen aztertu eta onartu zituzten.

Gobernu taldearen osaketa:

Agintaldiaren martxa eramateko organo gorena osatuta geratu zen, honako bost partaiderekin:

- Mikel Pagola (EAJ-PNV).
- Jorge Segurado (EAJ-PNV).
- Lucia Goñi (EAJ-PNV).
- Agurtzane Mercader (EAJ-PNV).
- Ainara de Miguel (EH Bildu).

Alkate-ordeak:

Lau izendatu dituzte, guztiak gobernu taldeko kideak.

- Lehen alkate-ordea: Jorge Segurado (EAJ-PNV).
- Bigarren alkate-ordea: Lucia Goñi (EAJ-PNV).
- Hirugarren alkate-ordea: Agurtzane Mercader (EAJ-PNV).
- Laugarren alkate-ordea: Ainara de Miguel (EH Bildu).

Sail nagusietako arduradunak:

- Antolakuntza: Jose Luis Goi-ketxea (EAJ-PNV).
- Lurraldea: Jorge Segurado (EAJ-PNV).
- Herritargoa: Lucia Goñi (EAJ-PNV).
- Bake eta bizikidetzatza: Mikel Artola (EAJ-PNV).

Erakunde nagusien ordezkariak:

Herri mailako eta eskualde mailako ordezkariak nagusiak, hauexek izango dira:

- Kulturnieta, Urnieta eraiki: Udal ordezkari guztiak erakunde horietako kide dira.
- Sanmarko, Añarbe: Jorge Segurado (EAJ-PNV).
- Behemendi: Mikel Artola (EAJ-PNV).
- Beterri-Buruntza garapen agentzia, EUDEL: Mikel Pagola (EAJ-PNV).

Udal ordezkarien dedikazioa:

Mikel Pagola (EAJ-PNV) alkatea izango da egun osoz liberatuta egongo den hautetsi bakarra. Gainerakoen kasua liberazio partzialekoa izango da. Jorge Segurado jeltzaleak, esaterako, %70eko liberazioa izango du. EH Bilduko Ainara de Migueli, oposizioko buru denez, dedikazioa legez dagokio. Eta hark %50eko lanaldia izango du. EAJko Luke Goñik %45eko dedikazioa izango du, eta David Roscok %35ekoa.

PSE-EEko ordezkariak ez dute liberaziorik izango, nahiz eta aurreko agintaldian izan. PSE-EEko Herme Gonzalez bozera-maileak ez zuen jeltzaleen proposamena begi onez ikusi, eta agintaldia ez dela ondo hasi gaineratu zuen. Gai horren harira, EH Bilduk alderdi guztientzat dedikazioa egotea eskatu du. Baita sozialistentzat ere.

Mikel Pagola alkateak gobernu taldeak lan karga handia izango duela adierazi zien, eta hori dela liberazio handiagoo jeltzaleen esku uzteko arrazoiak.

Puntu ezberdinetan gai honi buruz hitz egin zuten. Udal ordezkarien liberazioa noren artean banatzeko garaian, urtez urte azter daitekeela aditzera ematera iritsi zen Pagola alkatea.

Udal batzaraldiak

Azken urteetan bezalaxe, Udalaren osoko ohik batzaraldiak hilabete bakoitietan eta azken asteartean ospatuko dira.

ORAIN ARTE BEZALA, UDALAREN OSOKO BATZARRALDIAK BI HILABETEZ BEHIN DEITUKO DITUZTE

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Koldo Tapia, Fermin Zinkunegi eta Juxto Egaña Kantazaun ekimeneko kideak dira. AIURRI

Euskarari hauspoa emateko ekimen berria

Urnietan, ostiral honetan, Kantazaun izeneko ekimen berria martxan jarriko dute. Euskara ardatz hartuta, euskal kantagintzaren bidez, herriko kaleak girotu nahi dituzte. 19:00tan irtengo dira San Juan plazatik, herrigunean zehar kantari aritzeko asmoz

Erredakzioa URNIETA

Astelehen arratsaldean, Koldo Tapia Kantazaun taldeko kideak ekimenaren berri eman zien Euskadi irratiko entzuleei, *Mezularia* saioan Ainhoa Etxebeste aurkezleak eta Jon Ander Ubeda Aiurriko kazetariak egindako galderei erantzunez. Astelehen arratsaldeetan toki-hedabideei tartea eskaintzen

zaie, eta aste honetakoan Aiurri astekariak Kantazaun ekimenari gonbitea luzatu zion. Kantagintzaren bidez euskarari hauspoa eman nahi diotela aitortu zuen Koldo Tapiak, lehen lehenik: "Egoera oso berezia bizi dugu. Inoiz baino euskaldun gehiago gara, eta inoiz baino ahulago ote dagoen sentsazioa daukagu. Eta guk gure ekarpe-

na egin nahiko genuke, eguneroko bizitzan erabilera sustatuz. Euskararen erabilera izan delako gure giharra, gure iraupe-nerako sustraietakoa. Gu ez gara euskararen salbazioa planteatzen ari. Bide asko egin ditugu mundu salbatu nahian, baina gauza txikiak baztertu egin ditugu eta hori berreskuratu behar dugu".

Euskara ahoan

Euskalgintzan eta kulturgintzan ibilbide oparoa egindakoa da Koldo Tapia. Erreferentzia handia da, atzoko eta gaurko euskaldunentzat. Urnietan bizi denetik bere ekarpena egin du, gainerako euskaltzaleekin batera. Euskara erdigunera ekarri beharra dagoela tinko defendatzen du: "Euskara, eguneroko bizitza duen joko zelai horretan, espazioa galtzen ari da. Alde batetik, energia handia ipini dugu eskolan eta ikastoletan eskaini izan dadin. Hizkuntza baten oinarriko funtzionamenduari erreparatzen hasita, deigarria da zein nolako erraztasunarekin pasatzen garen erdaraz egitera. Nik uste dut inertzia hori ez dela euskaldunok sortutakoa, euskaldunoi behartutako zerbait baizik. Aurrera egiteko beharrezkoa da norbanakoak erabaki-jokabide bat hartzea. Ahalegin berezia egin beharra daukagu euskara eguneroko bizitzan gure komunikazio elementu bilakatzeko".

Ahaldundu beharra dagoela, alegia. "Euskaldunok, eta euskaldun zahar garenok, taberna batera edo denda batera sartzen garenean euskara ez badugu lehendabiziko hizkuntza bezala erabiltzen, oso gaizki gabilta. Euskara egin behar dugu inongo konplexurik gabe, inongo lotsarik gabe. Zorritzarenez, erdaraz aritzeko joera hori oso zabaldua dago. Guztiok egiten dugu bekatu hori, ni neu sarri-

tan lotsaturik geratzen naiz denda batera joan eta erdaraz hasten naizenean. Joera horrekin hautsi beharra daukagu".

Joera orokorraren aurrean, tokian tokiko arnasguneak

Erdarara igarotzeko joera orokor horri aurre egiteko, herritar talde batek Urnietari begirako ekimena abian jarri du. Kantazaun izena du ekimenak, eta irailean hasita hileko azken ostiralean kantari arituko dira. Herritarrekin batera, Txanbolin elkarteak musikariak alboan izango dituztela iragarri dute. Euskararen bidean, aletxo ipini nahi dutela berretsi du Koldo Tapiak: "Urnietan bezalako herri euskaldun batean, erabilera maila baxua duen herri batean, euskarak kalean presentzia izatea nahiko genuke. Gure ekarpena oso xumea da, oso apala, baina esan ohi dudana bezala, gorputzak funtzionatu ahal izateko zelula guztiek ongi egon behar dute, armonian eta funtzionamendu osoan. Hizkuntza-rena gauza berdina da, eta guk ekarpena egin nahi dugu, zelula horietariko bat funtzionamenduan egon dadin. Hots, kantatzearena. Kantatzea gure ohituratakoa da. Ez dut esaten horrekin euskara salbatuko dugunik, ezta gutxiago ere. Baina gizarte bizitzan euskarak hor egon behar du".

Kantuzaleek ostiral honetan kantari ateratzeko aukera bikaina dute. 19:00tan, San Juan plazatik hasita.


**KANTAZAUN EKIMENA
LEHEN ALDIZ IRTENGO
DA OSTIRAL HONETAN,
19:00TAN SAN JUAN
PLAZATIK ABIATUTA**

**IRAILETIK AUERRERA,
HILABETEO AZKEN
OSTIRALEAN KALEZ
KALE KANTARI
IBILIKO DIRA**

Egunean eguneko albisteak sarean



Kiroltasunari saria



Agintaldiko lehen plenoa



San Juan sua Urnietan

AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA



KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

EAJ-PNV ANDOAIN

Euskaraz bizi nahi dugulako

Euskaldunok ditugun altxor zaharrenetakoa dugu gure hizkuntza, euskara. Gaur arteko ibilbide luze honetan, euskara desagertzeko arriskuan ere egon da, urte askotan honen erabilera debekatua eta zigortua izan delarik. Honi aurre egiteko, euskararen aldeko lan konstantea egin da, azken hamarkadetan ezagutza eta erabilera sustatzeko kontsentsu politiko zabalak lortu direlarik.

Andoain ez da salbuespena. Gure herrian ere, EAJ-PNVko kideak tinko aritu gara euskara bizirik mantentzeko eta honen erabilera sustatzeko lanetan. Honen adibide, azken 2015-2019 legealdian, udalbatzan aho batez, onartu berri dugun “Andoingo Udalean euskararen erabilera normalizatzeko plana” 2018-2022 urtetan garatu beharrekoa.

Plangintza honen irizpide nagusiak, besteak beste, udal langile eta herritarren artean euskararen erabilera sustatzea; eta euskara beste hizkuntzen artean lehenestea dira, honen aldeko diskriminazio positiboa eginaz.

Honek ez du esan nahi, Udala eta herritarren arteko harremanak euskara hutsean izan behar direnik nahitaez, erakunde publiko batek derrigorrez eskaini eta bermatu behar baitu tokian

tokiko hizkuntza ofizialetan bere zerbitzuak emateko eskubidea, kasu honetan bai euskaraz eta bai gazteleraz.

Ondorioz, andoaindar guztien hizkuntz eskubideak bermatzen direnez, garbi adierazi nahi dugu Andoingo EAJ-PNVk orain arte bezala, euskara eta honen sustapenaren aldeko politikak aurrera ematen jarraituko duela. Kasu honetan gainera, ENBA euskara-ko lainsailaren gidaritzatik.

EAJ-PNVk argitu nahi du ez datorrela bat alderdi sozialistak agintaldiko lehenengo Udalbatzan adierazitako erabakiarekin: Udalbatzetan gaztelera lehenestekoa. Argitu behar da, erabaki hori ez dela Andoingo Udal Gobernu Taldeak hartua izan, ez eta Udaleko ENBA-euskar sailaren hobespenarekin, alderdi sozialistak aldebakartasunetik hartutako erabakia izan dela.

Norberak askatasunez adierazteko duen ahalmen osoa bermatu nahi dugu, baina horretarako ez da bidezkoa euskara baztertzea. Hartutako erabaki okerra zuzenduko dutelakoan, orain arte egin dugun bezala, Andoainen euskara bizirik mantentzeko eta honen erabilera indartzeko lanean jarraituko dugu, euskaraz bizi nahi dugulako.



ZABALIK

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

L-a soinean

Gida-baimena eskuratzeko sasoiari gauda. Urte batez L letra atzealdean ipinita, ikasitakoa praktikan jarri ohi dugu. Politikagintzan ez dago halakorik. Andoingo alkateak lehen plenoan hitza hartu eta dagoeneko ia denori ezaguna zaigun adierazpena egin zuen. Ohar modura egindakoa zen, inolako maliziarik gabe hitz egiten duenak bezalaxe: Plenoetan erdaraz egingo zuela, udalgintzan egunerokoan euskaraz ari bada ere. Lehen irakaspena: Alkate modura egiten den edozein adierazpenaren eragina biderkatu egiten da. Lehen pleno horretan sentiberatasun handia pizten duen gaia ukitu zuen: Euskara.

Iragarritako asmoa argudio gehiagorekin osatu zuen. Oposizioan zegoenean ere horrela jokatu zuela defendatu zuen. Bigarren irakaspena: Alkate izatea alderdi politiko baten ordezkari izateaz haratago doa.

Maider Lainez andoaindar guztien alkatea da, eta andoaindar gehiengoak euskararekiko sentiberatasun handia erakusten du.

Alkatearen iragarpen hori ez zuten EH Bildukoek oharkabean pasatzen utzi, eta azkar batean gobernu hitzarmena sinatu duten PSE-EEri eta EAJ-PNVri atsekabea adierazi zieten.

Jeltzaleek hitza hartu zuten, bere alderdiak euskararekiko duen konpromisoa defendatzeko. Alkatearen esku utzi zuten erdaraz aritzearen ardura. EAJ-PNV, ordea, gai honetan ez da aktore hutsa. Gobernu ardurak hartu ditu. Besteak beste, euskararena. Plenoa igaro eta sei egunera iritsi da jeltzaleen erreakzioa, sozialistek egindako iragarpenarekin ez datozela bat adierazteko. Bitartean dozenaka iruzkin agertu dira sareetan. Zinez egoera bitxiak topatu ditudala. EAJ-PNVko hauteszerrendan doan herrikide bat alkatearen erabakia defendatu

nahian. Eta, kontrara, Gipuzkoako PSE-EEko kide historiko ezagun baten iritziz zorrotza: horrelako erabakia hartzen duen alkategai bati ez liokeela inoiz botoa emango.

Plenoaren ostekoa osatzeko alkatearen balorazioa falta da. Astekaria inprentarako bidean dela iritsi da. Euskaldun ez diren eskubideak defendatu nahi dituela dio. Eta teknikoekin batera plenoak bi hizkuntzatan zabaltzea aztertzen ari direla gaineratu. Ohar berean jokabide aldaketa iragarri du: Elebieten jardungo duela erantsi du.

Datuei erreparatzea baliagarria da: Eustaten arabera, andoaindarren %75a euskalduna da. Ulergarria da, beraz, askok egun hauetan azaldutako kezka.

Plenoek interes gutxi pizten dute. Youtuben ez dira 100 bisitara iristen. Baina ez hizkuntzagatik. Plenoak berez astunak direlako. Hitz egin dezagun plenoen asperduraz, euskara tartean nahastu gabe.



Aiurri eskuragarri:
Ebeiz eteko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urrietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Disenua: Golenia Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.



AIURRIk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

PROTAGONISTA

“Gu espetxera joateak motxiladun ume gehiago egotea suposatuko luke”

EKAIN ZUBIZARRETA 11-13 AUZIAN EPAITUKO DUTEN HERRIRA EKIMENENKO ANDOAINDARRA

Mikel Arberas ANDOAIN

Epaiketa izango zela jakiteak nola eragin dizu, maila pertsonalean?

Prozesua luzea da, duela sei urte atxilotu gintuzten eta, beti egon gara epaiketaren zain. Bagenekien eguna iritsiko zela, baina ez genekien noiz. Beti eduki dugu mamu hori gainean. Eguna heldu da eta fase honi bukaera emateko data ezarri dute. Beste alde batetik, amorrua eta kezka da prozesu guzti honek sortzen didana. Gure bizitza pertsonala garatzeko oztopo handia suposatzen du epaiketak.

Egoera horri nola eusten diozue zuk eta zure familiak?

Kezka handiz bizi dugu egoera, baina beste alde batetik, indartsu gaude; hein handi batean, inguruko jendeak erakusten digun elkertasunagatik, maitasunagatik eta babesagatik, maila pertsonalean eta epaituak izango garen kolektibo gisa. Eskertzekoa da babes hori horrelako egoera bati aurre egiteko garaian. Epaiketara joango gara, egindako lanaz harro. Ez gara ezkutatuko. Egindako lana egin dugu, lan publikoa izan da, presoek eskubideen aldeko lana, eta gu ez gara ezkutatuko. Frogatzen saiatuko gara, lan horrek ez duela zerikusirik izan egiten dizkiguten akusazioekin. **Makroepaiketa abian da, hautsak harrotu nahi dituzte?**

2013ko hartan garbi ikusi genuen mendekua izan zela. Gainera, presoek gaineko mugimenduak indar handia hartu zuen. Beraz, Estatuaren erantzuna errepresioa eta atxilotetako izan ziren. Orain datorren epaiketa, inertzia horren jarraipena da. Hemen ziklo berri bat eraiki nahi zen eta presoek gaia erakustarazi eskubideen



Epaiketa berean auziperatuko dituzte Ekain Zubizarreta andoaindarrak eta Amaia Esnal eta Jexuxmari 'Kudu' Aldunberri urnietarrak. AIURRI

ikuspegitik. Oraindik ere, estatuaren aldetik, iraganean eduki zuten jarrera ikusten dugu.

Ekitaldi edo mobilizazioen bat egiteko asmorik ba al duzue?

Printzipioz, epaituok lan talde ezberdinetan antolatu gara epaiketari aurre egiteko. Horrekin batera, mobilizazio orokor bat eratu dugu irailaren 14an Bilbon, manifestazio nazional batekin. Bestalde, epaitu bakoitzaren herrian plataforma bana sortzen ari dira. Andoainen uztailaren 9an 18:30etan batzar ireki bat egingo da Urigainen, auzipetuei begira babes talde bat sortzeko.

Euskal Herria osoan barrena elkartasun handia nabaritzen da.

Bai. Sinadura bilketa bat martxan jarri da, eta 5.000 sinaduratik gora lortu ditugu.

"GURE LANA PUBLIKOA IZAN DA, PRESOEN ESKUBIDEEN ALDEKO LANA"

Kezka bizia

Epaiketaren hasiera irailaren 16rako ezarrita dago eta, gutxienez, azaroaren 28ra arte luzatuko da: "Joan etorri asko egingo ditugu Madrilera. Gainera, familia hemen utzi beharko dugu, baita gure lana ere. Horrez gain, epaiketak 350.000 eurotik gorako gastua suposatuko du bidaiak, hotela, abokatuak eta beste zenbait gastu direla medio". Epaiketari aurre egiteko laguntza emateko kontu korrantea ireki dugu: Laboral Kutxa: ES82 3035 0057 9205 7005 9033. Info: 11-13makroepaiketa.eus.

UZTAILAREN 9RAKO BATZAR IREKIA DEITU DUTE URIGAINEN, 18:30EAN HASITA

Oro har, babes talde asko ari dira sortzen pertsonen eta eragileen aldetik. Gainera, jendea prest dago gu defendatzeko, baita inplikaturako eragileak babesteko ere. Sekulako heldulekua da jendearen babesa. Hurbiltzea eta elkartasuna erakustea oso garrantzitsua da guretzat. Norbanakoak ahal duen neurrian bustitzea eskatzen dugu, eta bakoitzak bere hondar alea jartzea. **Familiak eta gertuko lagunek nolako jarrera dute?**

Kezkatuta daude. Akusazioak urte askotakoak dira, nire kasuan 13 urte eta erdiko espetze zigorra da, lagun batzuek berriz, 20 urtetik gorako espetze zigor eskaerak dituzte. Kezkatuta gaude.

Kontuan hartu beharrekoa da gaudenen artean hainbat gurasoak garela, gure ardurapean 40 umetik gora daude. Beraz, gu espetxera joateak motxiladun ume gehiago egotea suposatuko luke. Bestela esanda, gu bistan joateko milaka kilometro egin behar izatea.

HAU ERE BADUGU!

'Egunean behin' euskal app interesgarria



Nola du izena Tolosaldeko tokiko telebistak? Nongo toki komunikabidea da "Hiruka"? Zenbat edizio ditu Ttap aldizkari digitalak?

Toki komunikabideak ondo ezagutzea saria du! Aste honetan, Ttap aldizkaria da Egunean Behin jokoaren babeslea, eta hori dela eta, Ttapi berari zein toki komunikabideei eta Euskal Herriko pertsonaia famatuiei buruzko galderak erantzun beharko dira astean zehar.

Egunean Behin Android zein iOS mugikorretarako joko bat da. Egunero-egunero, 10 galderako sorta bati erantzun behar zaio eta, astea amaitzean, puntuaziorik altuena duenak saria irabazten du. Puntuazio hori emandako erantzun zuzenen eta erantzuteko behar izandako denboraren arabera izaten da.

Aste honetan, saria bi laguntzako hidroterapia zirkuitua da, udako oporrak lasai-lasai hasteko. Saria Ttap aldizkariak ematen du. Ttap Euskal Herriko eta Kataluniako hainbat hedabideren artean sortutako aldizkari digitala da, gailu mugikorretik irakurri, ikusi, ukitu eta entzuteko pentsatutakoa.

Oraindik ezagutzen ez badituzue, deskargatu oraintxe aplikazio biak eta gozatu! Euskarazko entretenimendu digitalaren erakusgarri bikainak dira biak ere!

Egunean Behin, info gehiago: <https://www.codesyntax.com/eu/bloga/egunean-behin>

Ttap aldizkaria, deskarga: <https://labur.eus/ttap>



Kaletxikiko jaien hasieran, auzoko zapi erraldoia Goikoplazatik auzunera jaisteko ohitura dute. Eta atzetik Kandido eta Txikitxoak, eta Olagain taldeko txistulariak. AIURRI

Hiru egunez ospakizunez blai

Hugo Lorenzo Kandido eta Una Lopez, Damian Kelly, Inazio Aizpurua, Naia Barea eta Iker Barea Txikitxuak Kaletxikira fin-fin iritsi ziren Olagain elkarteko txistulariekin batera, ostiral arratsaldean

Xabier Lasa ANDOAIN

Kandido oholtzara igo, eta pregoia egin zuen. Jaietara hurbiltzeko aukerarik edukiko ez zuten kaletxikitarrekin gogoratzeko tartea hartu zuen lehenbizi, eta honela jarraitu zuen: "gure indarrak batu ditugu aurten ere, jaiak kristorenak izan daitezten. Eskerrik asko hau posible egiten duzuen guztioi". Gora San Pedro!, Gora Kaletxiki! eta Gora Ama Kandida! oihukatuz amaitu zuen pregoia. Ondoren, eta usadioari eutsiz, Kandido eta Txikitxuak

Ontza elkartera abiatu ziren txistulariekin eta gainerako auzotarrekin. Elkartearen atarian, elkartearen beraren bandera eta ikurriña zintzilikatu egin zituen Kandidok. Aldi berean, auzotarrek festaren ikur den zapi berde-beltza kalez kale zabaldu zuten. Hortik aurrera, festak ez zuen etenik eduki igande gaua bitarte.

Eguraldia ere bikain portatu zen, eta ez zen aitzakiarik egon antolatu ziren ekitalditara hurbiltzeko. Lan bikaina egiten du Jai Batzordeak urtean zehar, gero

asteburu bete batean ahalik eta jairik alaitsuenak eta gozagarrienak izan daitezten, eta erabat asmatzen dute ahalegin horretan. Horren adierazle izan daiteke auzotarrek zein kanpotarrek ekitaldi desberdinei aurten ere eman dieten erantzun beroa. Izan ere, denetik topa ahal izan da jai egitarauan, edonorren gogoia asetzeko moduan: haur eta gazteen abesbatzak, danborrada, bakarrizketak, euskal dantzak, sagardo dastaketa eta txapelketa, mahai jokoak, haur parkea, sardina jatea, elektrotzaranga...



Hugo Lorenzo izan da aurtengo "Kandido". AIURRI



Olagain taldeko txistulariak jaien hasierako kalejiran. AIURRI



Bi abanderari, Selene Marcos eta Josune Hernandez. Atzean, Oscar Muñoz, Juanma Gonzalez eta David Alonso. AIURRI



Auzoan, Goikoplazan eta Berrozpe elizatzon ibili ohi da Kaletxikiko danborrada. AIURRI



Berrozpen abesbatza txikiak eta abesbatza gazteak emanaldia eskaini zuten. AIURRI

Sagardo dastaketa



Gaztañaga (2), Lizeaga (1) eta Itsasburu (3) aurtengo onenak. AIURRI



Jendetza hurbildu zen Kaletxikiko sagardo dastaketara. AIURRI



Xabier Agirre eta Mikel bere semea, sagardoa zerbitzen. AIURRI



Javi Guerrero, Joseba Arabaolaza eta Josu Otamendi, sagardo dastaketan.



Igande eguerdian La Salle Berrozpe ikastetxearen ereserkia estrainekoz jendaurrean eskaini zuten. AIURRI

Ereserkiaren estreinaldia

Kultur sormenak ere protagonismo handia eduki zuen Kaletxikiko jaietan. Hain zuzen, Gora Kaletxiki Bandak urtero eskaini ohi duen kontzertuaren baitan, La Salle Berrozpe ikastetxearen ereserkia estreinatu zuten igande eguerdian

Xabier Lasa ANDOAIN

Joxe Mari Oiartzabal eta Joxeramon Berrondo dira abestiaren sortzaileak. Bi bertsok osatzen dute ereserkiaren letra.

Lehenak, hala dio: *Andoaingo herriak / badauka altxorra / ikaslek hezitze / estalpe ederra / baloreak lantzeko / eraikia da.*

Eta bigarrenak: *Betidanik eskolan / pertsonak hezitzen / bakoitzari lagunduz / arreta eskaintzen. / Familia ederra / dugu guk osatzen: / oso gustura gaude / La Salle Berrozpen!*

Bandaren eskertza

Bandak abestia interpretatu aurretik, Joxeramon Berrondok hitza hartu zuen, eta musikari guztien izenean ikastetxearekiko aitortza eta eskertza adierazi nahi izan zituen, beste ezeren gainetik. "Aitortza, La Salle Berrozpeko ikastetxeak Andoaingo herriari eskaini dion guztiagatik. Urteak eta urteak dira herriko gazteak formatu, zaindu eta hezitu dituela, eta horrexegatik txalo beroa merezi du. Eta eskertza, Gora Kaletxikiren Bandaren partetik,

ikastetxeak beti eskaini baitigu bere babesa eta gerizpea. Zuzeneko emanaldira ikastetxeko ordezkariak zabala azaldu zen. Irakasleek, zuzendaritza batzordeko kideek, gurasoek eta ikasleek, denek ere abestiaren letra abesteko pronto agertu ziren, eta era horretan, abestatzeko egokia osatu zuten, Gora Kaletxiki Bandako instrumentistak osagarri ezin egokia osatuz". Ikasle talde batek, gainera, danborra joz hartu zuten parte abestiaren estreinaldian.



Oiartzabal zuzendaria eta La Salle Berrozpeko danbor joleak. AIURRI



La Salle Berrozpe ikastetxeko ordezkariak Kaletxikiko jaietan. AIURRI



June Miner eta Eñaut Egaña, Soka dantzako zati bat dantzatzen. AIURRI



Joxe Ramon Belamendia adunarra Zortzikoa dantzatzen. Hilario Ugaldek eta biek aurtan Soka dantzan parte hartu dute. AIURRI



Andoni Alonso eta Izaskun Aizpurua dantzariak, eta erdian Hugo Lorenzo 'Kandido'. AIURRI

Jaietako argazkiak eta bideoak sarean



Abesbatza txikia Berrozpen.



Abesbatza gaztea Berrozpen.



Kandido Ontza elkartean banderak zintzilikatzen.



Joxe Mari Oiartzabal Gora Kaletxiki banda zuzenduz.



Juantxo Lopez de Munainen esanetara ari da Malou Henriksen andoaindarra. Irudian, iazko Goiburuko jaietan. **AIURRI**

Malou Henriksen Goiburuko segalaria

Andoaindarrak segalari izateko grina erakutsi du azken aldian, eta lehiaketen mundua probatzera joan zen Altzora, aurreko larunbatean. Euskal Herriko IX. Segal-Ligaxkako hirugarren eta azken saio erabakiorra ospatu zen bertan

Xabier Lasa ANDOAIN

Altzoko txapelketara ez zen espreski lehiatzera joan, bere burua neurtzera baizik: “Txapelketako aurreko bi saioetan ez nuen parte hartu; azken honetan aurkeztu banintzen, batik bat neure burua neurtzeko izan zen. Bide horretatik jarrai dezakedan ala ez ikusteko”.

Txapelketak azkartasuna eta txukuntasuna kontuan hartzen dituen modalitatea zuen oinarri, eta emakumezkoen kategorian 7×5 m2 -ko saila ebaki behar izan zuten. “25 metroko bi sail behar ziren eta nahiko bizkor ibili nintzen abailari dagokionez, pare bat minutu behar izan bainituen lanak bukatzeko; bosga-

rren geratu nintzen sailkapen horretan. Belarra txukun moztearen kontuan, ordea, zabarra go ibili nintzen eta sailkapenean zazpigarren geratu nintzen”.

Jarraitzeko gogoz

Altzon indarrak neurtu ostean, sentsazioa onekin itzuli zen etxera. “Ez nintzen gustura geratu egindako lanarekin. Baina etorkizunari begira jartzen bainaiz, jarraitzeko motibazioarekin itzuli nintzela esango nuke. Hobetzeko asko daukat. Batetik, urduritasuna kontrolatzen. Eta, bestetik, teknikan sakontzen. Biak ere prestaketa saioekin eta jendaurrean arituz landu litezkeela iruditzen zait”.

Malou Henriksenek Juantxo Lopez de Munain auzokidea izan du laguntzaile, orain arte. “Larunbateko saioan etengabe egiten zidan oihu, sega azpitik sar nezan. Izan ere, segaren punta maiz lurrean sartzen nuen! Zorrotza da, baina erakusle bikaina, eta estimatzen diot jarri duen interesa eta pazientzia. Juantxo herri kirolak eta bereziki sega sakon-sakonetik bizi duen pertsona da. Dena esatera, bere familia guztia da herrian sortzen diren jaien, lehiaketen eta herri kirolen animatzaile”. Malou Henriksen orain hiruzpalau urte murgildu zen herri kirolen unibertsoan. “Inoiz ez naiz oso-oso kirolaria izan, baina 2017ko San-

tas Krutz jaietan giza-probaren erronka planteatu zen, eta Andoingo taldeak parte-hartzaileak behar zituen, bertan izena eman nuen; Donostiako bi auzoen kontra aritu ginen, jaietan ikuskizun polita sortuz. Bide horretatik jarraitu nahi nuen, Ibarako eta Usurbilgo emakumeen giza-probatako taldeekin aritu nintzen bolada batean. Iaz, berriz, segari heldu nion Andoingo auzoen arteko herri kirolen ligan”.

Danimarkarra, herri kirolean

Malou Henriksen Danimarkan jaio zen baina txikitik Inglaterrara joan eta han egin da bere bizitzaren zati handi bat. Orain hamar bat urte Euskal Herrira etorri zen arte. “Biologia naiz, eta Donostiako ikerketa zentro batean lan egiten dut; Andoainen sei bat urte daramat bizitzen, Goiburu auzoko baserri batean hain zuzen”.

Izena, itxura-bisaia, azentua... direla eta, maiz entzun behar izan ditu galdera berberak. “Nongoa zara? Nolaz ikasi duzu euskara horren ondo? Zer dela herri kirolean?”. Umorea eta denbora hartzen ditu, galderei erantzuteko. “Euskaldunak, berari egozten zaion topikoari eutsiz, ez dizu halakorik galdetuko aurreneko ezagutu aldian. Baina bai bigarrenengo edo hirugarrenengo, behin pixka bat konfiantza hartuz gero...”. Normaltzat jotzen du herri kirole-tako zenbait jenderi arraroa egitea bera segan ikustea. “Danimarkan edo Ingalaterran nik ez dut ezagutu antzeko herri kirolak, baina zer arraio, kirolak dira euskal kirol horiek ere, dibertsioa eta ariketa fisikoa uztartzen dutenak. Eta oraingoz sega egin zait gogokoan; nire nortasunarekin ondo moldatzen den kirola dela iruditzen zait, bakarka egin beharrekoa, kontzentrazioa eskatzen duena, naturan praktikatzeko dena... Gainera, ezin giro jatorragoa sumatzen da segalarien artean, lehengoan Altzon frogatu zen bezala; egundoko afari giro eder batekin amaitu genuen eguna!



Malou Henriksen.

Auzoen arteko lehiari arituko da berriro

lazkoaren antzera, aurten ere Malouk Goiburu auzoa ordezkatuko du Andoingo bost auzoek Santa Krutzetan abian jarri zuten lehiaketan, sega-probari dagokionez. Etxeberrietako jaien baitan, Miranda pasealekuko belazeetan jokatu da sega lehia, uztailaren 30ean. Malouk Mikel Jauregi (Buruntza), Unai (Etxeberrieta), Antton Arruti (Santa Krutz) eta Xabier Lasa (Sorabilla) izango ditu aurrez aurre. Pronostikoa eskatuta, irri egiten du “Lau mutilen aurretik geratu nahiko nuke. Baina oso ondo moldatzen direnak badira, Buruntza eta Etxeberrietako ordezkariek bereziki. Iaz erakustaldia eman zuten”. Lehiaren gainetik, baina, ospakizunari garrantzia ematen dio Malouk: “Oso ekimen polita da. Herri kirolak jai herrikoiei eta parte hartzaile batean sustatzeaz gain, auzoetako biztanleen arteko harremanak estutzen laguntzen du. Eta Andoingo herriari bizitasuna ematen dio”.



FRANTZIAKO TOURRA
AIURRI.EUS | @aiurri



Auñamendira irteera Urnietako mendizaleekin

Egun osoko irteera antolatu du Zanpatuz mendi taldeak uztailaren 20rako. Larunbatez izango da irteera, eta egun osokoa. Sei-zortzi orduko ibilaldia izango da, zailtasun ertain-handikoa. Izena emateko epea zabalik dago

Andoni Urbistondo URNIETA

Irteera ordua goizeko 05:00etarako aurreikusi da, mendian gora 09:00ak aldera hasi ahal izateko. Auñamendiko buelta luzea da, 6-8 ordu ingurukoa, eta harritsua, eta zailtasun ertain-handikoa, mendiak 2.507 metro baititu. Urnietara buelta iluntze parterako espero da, 20:00ak aldera gutxi gorabehera.

Xabier Ansa da irteerako arduraduna. Izena emateko Ikasmin akademiara edota Kantoi tabernara joan beharko da. Autobusak 10 euroko salneurria izango du bazkide ez direnentzat, eta 5 euro bazkide direnentzat. Data muga uztailaren 15a izan-



Auñamendi. EUSKAL-HERRIA.ORG

go da, asteazkena. Jatekoa eta edatekoa norberak eraman beharko ditu. Edatekoa garrantzitsua da, iturri bakarra dagoelako bide osoan, eta ibilbide hasieran. Bakoitzak bi litro inguru eramatea gomendatzen du mendi taldeak. Arropari dagokionez, xira edo berokiren ematea aholkatzen da, gailurrean tenperatura freskoa izan daitekeelako.

IRTEERAN PARTE HARTU NAHI DUENAK UZTAILAREN 15A BAINO LEHEN EMAN BEHAR DU IZENA

Txapelketa bikoitza Goiburuko pilotalekuan

Uztaileko arratsaldeetan, eta San Esteban jaiak hasi bitarte, hitzordu bikoitza izaten da Goiburuko frontoian: Eskuz binakako pilota txapelketa eta pala txapelketa. Lehena abiatu da, eta bigarren goan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago

Mikel Arberas ANDOAIN

Alde batetik, pala txapelketa jokatu da. Uztailaren 15ean hasi, eta abuztuaren 4ra arte luzatu da. Partidak teniseko pilotekin jokatu dira. Izena emateko garaian ezinbestekoa izango da bikotekide bat andoaindarra izatea. Izen-emateko epea zabalik dago Txalaka, Txitibar, Danena, Muga eta Lanbroa tabernetan. Informazio gehiago: 688 864 888. Prezioa 20 eurokoa izango da, partidak astean zehar jokatu dira, arratsaldeez.

Bestalde, Gaztetxearen eskutik, eskuz binakako pilota txapelketa jokatzeko ari dira egun haue-



lazko eskuz binakako pilota txapelketako finala. AIURRI

tan. Partidak astean zehar jokatu dira, arratsaldeko 17:00etatik 20:30etara, datorren

uztailaren 12ra bitarte. Bi txapelketen harira, giro polita sortzen da Goiburuko pilotalekuan.



ZABALIK

ANDONI URBISTONDO URNIETA

‘Tourra sakratua dek’

Uztaila. Beroa. Oporrak. Hondartza. Mendia. Eta Tourra. Aurten ere bai. Uztaila guztietako hitzordu finkoa. Siesta botatzeko aitzakia askorentzat. Ez dut lehen oroitzapenik gogoratzen. 10-12 urte nituenetik? Hor nonbait. Bazen bibote iletua zuen kazetari bat Espainiako Telebistan, Pedro Gonzalez uste dut. Bacigalupe eta Tamargo mitikoak ordezkatu zituenak. Geroago etorri ziren Fermin Aramendi eta Xabier Usabiaga Euskal Telebistan, eta azken urteetan Antonio Alix eta Eduardo Chozas Eurosport katean. Txirrindularitzaren jarraipen onena egiten duen telebista katea, zalantzarik gabe.

20-25 urte atzera arratseko 16:00tan hasten zen emankizuna telebistan, eta lasterketako berri hara bertaratutako berriemaile berezien bitartez bakarrik jakin zitekeen, irratietan orduro egiten diren boletinei edo parteei adi egonda. Ez zen internet sarerik, eta basamortu informatiboa erabatekoa zen. Kazetaritzan eman nituen lehen pausoak etorri ziren ondoren, Andoaingo Martin Ugalden, Euskaldunon Egunkaria-ko erredakzio zaharrean. Tourreko emankizuna hasten zenean bospasei lagun bata bestearen gainean jartzen ginen, ia-ia, erredakzio txoko batean zegoen telebista bakarrean ‘La Grande Boucle’ ikusteko. Han ikasi nuen inoiz ahaztuko ez zaidan pasadizoa, Bianditz Iraola kazetari zaldibiarren esana. Bekadun, garai hartan, nazioartea sailean, Jose Mari Pastor arduraduna etorri zitzaion, testuren bat idatzeko eskatuz. Iraolak natural bota zion: “Hi Jose Mari, Tourra sakratua dek!”. Gure barre algarak Txileko El Mercurio egunkariko erredakzioan ere entzun ziren...

Egun etapa osoak eskaintzen dituzte hainbat komunikabideetan, eta kontakizuna egiten duten esatariek bai meritu latza, etapa aspergarri samarra bada, hiztegiko hitzak bukatzeko arriskua baitago. Tourreko ASO elkarte antolatzailea ere horretaz konturatu da, nonbait, eta iraganean ezin aspergarriagoak ziren 250 kilometroko etapa zozoak nabarmen murriztu ditu. Eta geratzen direnetan, aspertzeko tarterik ez, telebista kateek hainbat erreportaje edo elkarrizketa interesgarri eskaintzen dituztelako.

Froome zainzuriak egingo du kale aurten. Dumoulin gentlemen-ak ere bai. INEOS taldearen diktadura apalagoa izango ote da? Aginte makila euren da, eta nire ustez Egan Bernalek Tourra txikituko du. Goitizena ere jarri izan diot, dagoeneko. Hegan Bernal! Geraint Thomas taldekideak utziko ote dion... beste aurkari denek ez dute Kolonbiako kakalardoaren sua itzaltzeko kemenik. Ezta galoiak etengabe eskatu eta eskatu aritzen den Nairo Quintanak jeloskorra ere. Larunbatean hasiko den Tourrean sua pizteko aldapa piloa daude, eta *outsider* bat eman behar banu, Alejandro Valverde aipatuko nuke.

Guztiaren berri emango dugu Aiurri.eus webgunean, etapa amaitu eta gutxira, egunero. Hondartzan eta mendian bazaude, informazio zehatza jasotzeko aukera edukiko duzu, erraz-erraz. Bianditz lagunak aspaldi esan baitzuen: “Tourra sakratua dek!”.

TOURRAREN BERRI EMANGO DUGU AIURRI.EUS GUNEAN, EGUNERO, ETAPA AMAITU ETA GUTXIRA

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 4

ANDOAIN Deialdia

1974 urteko kintoen bazkaria urriaren 26an izango da, eta antolatzaileek ekimenaren berri eman nahi dute. Kontu korrontea ireki dute, eta bertan 50 euroko ingresoa egin beharko da urriaren 12 baino lehen. Kontu korrontearen zenbakia: ES17-30350026230261136236 eta gaia: izen-abizenak. Informazio gehiago: 1974andoain@gmail.com. **Izena emateko epea zabalik.**

ANDOAIN Txapelketa

Gaztetxeak antolatuta, eskuz binakako pilota txapelketa. Partidak astean zehar jokatu dira, 17:00tik 20:30era. **Uztailaren 12ra arte.**

ANDOAIN Erakusketa

Pintura eta marrazketan irakasle den Eduardo Arreseygorren 21 ikaslek beren lanekin osatutako erakusketa ikusgai ipiniko dute Basteron. Uztailaren 13a bitarte egongo da zabalik. "Introspektzioa" izena eman diote erakusketari. **Bastero, erakusketa aretoa.**

OSTIRALA 5

URNIETA Kantazaun

Euskal kantagintzari lotutako ekimen berria, kantatuz edo entzunez goza daitekeena. Lehen irteera ostiral honetan izango da, eta irailetik aurrera hileko azken ostiralean. Ekimena irekia da, nahi duen guztiari zabalik. **19:00, San Juan plaza.**

IGANDEA 7

ANDOAIN Txapelketa

Goiburko pala txapelketaren III. edizioa, tenisako pilotarekin jokatzeko dena. Neskak eta mutilak, binaka lehiatuko dira. Gutxienek partaidetako batek andoaindarra izan behar du. 20 eurokoa da izen-ematea. Non: Txalaka, Txitibar, danena, Muga, Lanbroa eta telefono bidez: 688 864 888. Hasiera: Uztailak 15, astelehena. **Izena emateko azken eguna.**



Udan tailerrak eta ikastaroak antolatu ohi dituzte Leitzaran bisitarien etxean.

ANDOAIN GPS ikastaroa Leitzaran bisitarien etxean

Mendiko orientazioari bideratutako GPS ikastaroa antolatu dute Bisitarien etxean. Irakaslea: Jaime Eguzkitza. Prezioa: 25 euro. Gehieneko kopurua: 12 lagun. APP ezberdinen erabilera erakutsiko dute: GPS Status, Alpify, Orux. Izen ematea: info@leitzaran-andoain.eus / 943 300 929. **Uztailak 6, larunbata. 10:00-14:00. Otieta parkea.**

OSTEGUNA 11

ANDOAIN Kale antzerkia

"Kale gorrian" izeneko antzezlanean Juanjo Otero eta Aritza Rodriguez aktore lanetan arituko dira. Hauxe saioaren azalpena: "Aitona-amona bikote bat etxerik gabe geratzear dago. Berrogei urtez bizi izan dira etxe horretan, auzo horretan, eta, gaur, ezkondu ondoren erosi zuten pisua betirako uzteko unea iritsi da". **19:00, Eskola kalea.**

LARUNBATA, 20


ANDOAIN Dantza

"El fin de las cosas" ikuskizuna, Eva Guerreroren eskutik. **19:00, Goikoplaza.**

"Lau eme", Haatik taldearen eskutik. Zapalduak ziren garaiko emakumei buruzko pieza da. Iraganari begirada, pausoz pauso gaur egungo emakumearengana iritsi arte. **20:00, Goikoplaza.**



ZINEMA

**ANDOAIN****UDA ZINEMA****KALEAN****Ready player one**

Ostirala, 5: 22:00.
Bazkardo. Euriarekin
Ondarretan.

El cavernicola (Harpetarra)

Osteguna, 11:
22:00. Euskaraz.
Zumea plaza.

Campeones

Ostirala, 19:
22:00.
Goikoplaza.



SINOPSISIA

**Ready player one**

Zuz.: Steven Spielberg. **Herr.:** AEB (2018). **Generoa:** Zientzia fikzioa, abenturak. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Aktoreak:** Tye Seridan, Olivia Cooke, Ben Mendelsohn,... **Iraupena:** 140 minutu.

2045. urtean kokatutako filma

Oasis izeneko atari birtualaren bitartez, Wade Watts protagonistak eguneroko

iluntasunetik ihes egiteko joaera hartu du. Jolas horretan sari nagusia dago jokoan.



Igande honetan saio bikoitza eskainiko dute, lehena etxekoentzat.

Urnietako alkate txikien aukeraketa

Aurtengo San Migel jaietan haurren eguneko protagonista nagusiak alkate txikiak izango dira. Udalak irailaren 30ean kargu hori betetzeko hautagaiei deialdia luzatu die, eta hil honen amaiera bitarte izena emateko aukera izango da. Udalak adierazi duenez, "aukeraketa zozketa bidez egingo da Alkate Txiki izatea eskatzen duten 2010ean jaiotako haurren artean". Izena emateko bi aukera daude: Urnietako udalaren webgunean izena ematea, edota webguneako fitxa bete eta Lekaion aurkeztea (09:00-14:00). Izena emateko azken eguna uztailaren 30a izango da.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Libe eta Julen
Dagoeneko 8 urte beteko dituzue uztailaren 5ean!!! Oso ondo pasa zuen egunean eta urtero bezala elkarrekin ospatuko dugu! Muxu pila etxekoan partetik!!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Oso erraza da, eta dohainik:

www.aiurri.eus webgunea
"Zorion agurrak" atalean, fitxa osa ezazu. Urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus
Mezua eta argazkia bidali, herria zehaztuz.
Arantzibia 4-5, behea. Andoain
943 300 732.
Whatsapez:
619 16 35 37

Beteranoen mailako Europako txapelketan

Roger Wesney belar hockeyko Europako txapelketan parte hartu berri du. Anberesen (Belgika) jokaturakoa jokolari beteranoentzat bideratu da, eta Wesney 60-65 urte bitarteko selekzioaren partaide izan da

Xabier Lasa ANDOAIN
Espainiako selekzioarekin gus-tura aritu dela aitortu du Wes-neyk, "nahiz eta hara joan aurreko egunetan harrapatu nuen sukarra zela-eta Anbere-sera umorez zertxobait ukituta abiatu. Sei partida jokatu ditu-gu guztira. Aurreneko lau par-tidatan titular gisa aritu nintzen; txukun aritu ere eta gol bat sartu nuen. Bosgarrenegoa, zango batean zain-tiratua jasan nuen eta zelaia utzi egin behar izan nuen".
Txapelketa Ingalaterrak iraba-zi du, eta estatuko taldea zortzi-garren geratu da. "Esan daiteke txapelketan munduko onenak bildu direla, Australia kenduta. Gure aurretik geratu diren tal-de gehienak Britainia Handikoak dira; horiek gu baino trebatua-go zeuden, urtean zehar lehia-keta ugari jokatzen baitituzte".



Roger Wesney. AIURRI

Gazte garaiko kirola biziberritzen
Wesney Atletico San Sebastian taldeko jokalaria izan zen ur-tetan, goi mailan. Bere taldeki-de izandako beste hiru jokolari joan dira estatuko selekzioare-kin. Selekzioa batik bat Kata-luniako jokalariekin osatu da. Bizipen onak ekarri ditu Roge-rrek Anberesetik.
Pasadizoen atalean, jatorriz Zelanda Berrikoa izateak eragin

ohi dizkion txantxak aipatu du Wesneyk: "azken afari ofizialean, hitza hartzeko eskatu zidaten txapelketaren balorazioa egin nezan; gainera, Maorien etniaren Haka izeneko erritua-la egitera derrigortu ninduten. Taldekideentzat *Kiwi*-a bainaz".
Sasoiko jarraitzen du Rogerrek oraindik, eta itxaropentsu ager-tzen da hurrengo urtean Japo-

nian antolatuko duen munduko txapelketari begira jarritz gero. "Makilarekin (stick) jokatzen segitzen dut ahal dudan guztie-tan, lasterka ere ibiltzen naiz; txapelketara forma onean iri-tsiko naiz.
Izatekotan ere, ekonomiak eragotzi nezake Japonia joatea, norberak bere bidaia ordaindu beharko baitu".

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA
Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN
Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN
Larunbata 6 eta igandea 7
PAJARES: Zumea kalea, 20.
943 59 26 29 Andoain.

URNIETA
Larunbata 6 eta igandea 7
CASTILLA LARBURU: Urbietan, 7.
943 552 941. Urnietan.
GAUEZ: ALDABE. Hernani.



Urnietako igerileku irekia. AIURRI

Arazo teknikoak Urnietako Udal igerileku irekian

Igerileku txikia zabalik dago, eta bertan eskaintzen diren ikastaroak ere martxan dira. Arazoak handian daude

Erredakzioa URNIETA
Arazo teknikoak konpontzeko lanak gauzatzen ari dira. Ho-rrerenbestez, igerileku handia aste amaierarako irekitzea espero dute.
Zabaldur bezain laster herrita-rreri jakinaraziko zaie. Hala ere,

udalatxeak jakinarazi du igeri-leku txikia zabalik dagoela eta ikastaroek martxan jarraituko dutela.
Udalak barkamena eskatu die erabiltzaileei, eta datozen egu-netan irekitzea espero dela ja-kinarazi du.

Helduen heziketa eta euskara ikastaroetarako dirulaguntzak

Amaitu den ikasturteari dagokion dirulaguntza eskatzeko aukera dute urnietarrek, Bertan bulegoan

Erredakzioa URNIETA
Urnietako udalak euskarako ikastaroetan matrikulatu eta euskarako eta HHI-Helduen He-ziketa Iraunkorreko ikastaroet-ara joan direnentzako diru-la-guntza eskatzeko epea ireki du. Diru-laguntzak eskatzeko epea

uztailaren 30era arte egongo da zabalik. Eskaera orriak Bertan bulegoan entregatu beharko dira.
Ikasle langabetuen diru-lagun-tza matrikularen %100koa izan-go da, eta gehienez %85ekoa lanean ari direnen kasuan.

